# I. Atala / Sección I

# Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
# Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

### Gizarte Ekintza Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 27/2009 FORU DEKRETUA, otsailaren 24koa. horren bitartez, familien barruko zaintzetarako eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoek 2009an Bizkaiko Lurralde Historikoan izango dituzten zenbatekoak zehazten dira.**

**ARRAZOIEN AZALPENA**

Abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak eta apirilaren 24ko 74/2007 Foru Dekretuak, inoren laguntzabeharra izatea aitortzeko prozedura arautzen duenak, honela definitzen duten 2. artikuluan mendetasuna: "Adin, gaixotasun edo ezintasunen bat dela eta, pertsona batzuek modu iraunkorrean bizi duten egoera, baina autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsorialaren gabezia edo galerarekin zerikusia duena, eta horren ondorioz beste pertsona baten edo batzuen arreta behar baldin badute, edo laguntza handia eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzak aurrera eraman ahal izateko; edo adimen-ezintasuna edo gaixotasun mentala dutenen kasuan, autonomia pertsonala izateko beste laguntza mota batzuk behar dituztenen egoera."

Araudi horiek autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasunegoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko baldintzak arautzen dituzte, eta, horretarako, Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema sortzen dute. Bizkaiko Lurralde Historikoaren esparruan, sistema hori ekainaren 19ko 98/2007 eta 99/2007 foru dekretuen bitartez garatzen da. Dekretu horiek familien barruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa arautzen dituzte, hurrenez hurren.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko Azken Xedapenetatik Lehenak legea progresiboki aplikatuko dela ezartzen du, eta honako urrats hauek bermatzen ditu: mendetasun handia dutela ebaluatutako pertsona guztiek 2007tik aurrera izango dute prestazioa jasotzeko eskubidea; 2008tik aurrera, eskubide unibertsal hori mendetasun larriaren 2. maila dutenei zabalduko zaie, eta 2009tik aurrera, mendetasun larriaren 1. maila dutenei.

Urtarrilaren 30eko 73/2009 Errege Dekretuaren bidez ezartzen dira abenduaren 14ko 39/2006 Legeko prestazio ekonomikoek 2009ko ekitaldian izango dituzten zenbateko maximoak.

Hori guztia dela eta, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2009ko otsailaren 24an eginiko bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DA:

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua.—*Helburua***

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko Lehenengo Xedapen Gehigarrian prestazio ekonomikoetarako egutegia ezarri zen. Horren arabera, foru dekretu honen bitartez onartu egiten da, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatu egiten dela mendetasun larriaren II. gradua eta 1. maila dutenek mendetasun-egoera duten pertsonen familia barruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa jasotzeko duten eskubidea.

### Departamento de Acción Social

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 27/2009, de 24 de febrero, por el que se determinan en el Territorio Histórico de Bizkaia las cuantías para el año 2009 de las prestaciones económicas para cuidados en el entorno familiar y de asistencia personal.**

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a Personas en situación de dependencia, y el Decreto Foral 74/2007, de 24 de abril, por el que se regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, definen en su artículo 2 la dependencia como el estado de carácter permanente en que se encuentran las personas que, por razones derivadas de la edad, la enfermedad o la discapacidad, y ligadas a la falta o la pérdida de autonomía física, mental, intelectual o sensorial, precisan de la atención de otras personas o ayudas importantes para realizar actividades básicas de la vida diaria o, en el caso de las personas con discapacidad intelectual o enfermedad mental, de otros apoyos para su autonomía personal.

Estas normas regulan las condiciones de promoción de la autonomía personal y de atención a las personas en situación de dependencia mediante la creación de un Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD) desarrollándose en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia por los Decretos Forales 98 y 99/2007, de 19 de junio, por los que se regulan, respectivamente, las prestaciones para cuidados en el entorno familiar y de asistencia personal de personas en situación de dependencia.

La disposición final primera de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a Personas en situación de dependencia, establece su progresiva aplicación garantizando en 2007 a todas las personas evaluadas como grandes dependientes la efectividad del derecho a las prestaciones, a partir de 2008 este derecho universal se extiende a los dependientes severos nivel 2 y a partir de 2009 a los dependientes severos nivel 1.

Mediante Real Decreto 73/2009, de 30 de enero, se establecen, para el ejercicio 2009, las cuantías máximas de las prestaciones económicas de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre.

Por todo ello, a propuesta del diputado foral del Departamento de Acción Social, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de fecha 24 de febrero de 2009,

SE DISPONE:

**DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1.—*Objeto***

Mediante el presente Decreto Foral se aprueba ampliar conforme al calendario determinado en la disposición adicional primera de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a Personas en situación de dependencia, con efectos desde el 1 de enero de 2009, la efectividad del derecho a la prestación económica para cuidados en el entorno familiar de personas en situación de dependencia a quienes sean valorados en el grado II de dependencia severa, nivel 1.

Halaber, familien barruko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren 2009ko zenbatekoak ezartzen dira. Zenbateko horiek urte eguneratuko dira, gutxienez Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI) igotzen dena beste.

**2. artikulua.—*Familien barruko zaintzetarako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa zehaztea***

Bizkaiko Foru Aldundiak 2007ko ekainaren 19an emaniko 98/2007 Foru Dekretuak arautzen duen familien barruko zaintzetarako prestazioaren zenbatekoa honako hau izango da:

| Graduak eta mailak | Prestazio ekonomikoa |
|---|---|
| — III. gradua, 2. maila ............................ | 519,13 euro |
| — III. gradua, 1. maila ............................ | 415,73 euro |
| — II. gradua, 2. maila ............................ | 336,24 euro |
| — II. gradua, 1. maila ........................... | 300,00 euro |

**3. artikulua.—*Laguntza pertsonalerako prestazioaren zenbatekoa zehaztea***

Bizkaiko Foru Aldundiak 2007ko ekainaren 19an emaniko 99/2007 Foru Dekretuak arautzen duen laguntza pertsonalerako prestazioaren zenbatekoa honako hau izango da:

| Graduak eta mailak | Prestazio ekonomikoa |
|---|---|
| — III. gradua, 2. maila ............................ | 831,47 euro |
| — III. gradua, 1. maila ............................ | 623,60 euro |

XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa**

Aurrekontuari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, 2009an zehar foru dekretu honen babesaren pean ematen diren prestazioak honako partida honen kargura emango dira: Saila (03), Atala (0304) Programa (310305), Ekonomikoa (46100), 2007/0823 proiektu zenbakia, familien barruko zaintzetarakoetan, eta 2007/0822 proiektu zenbakia, laguntza pertsonalerako prestazioetan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

**Bakarra**

Indarrik gabe geratzen dira foru dekretu honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa**

Ahalmena ematen zaio Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuari, foru dekretu honetan aurrez ikusitakoa garatu, betearazi eta ezartzeko egoki diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Bigarrena**

Foru dekretu honetan aurrez ikusten ez diren alderdi guztietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako arau orokorrak ezarriko dira, bai eta, dekretu honekin bat etorri eta ezartzeko egoki izanik, indarrean dauden legezko xedapenak ere.

**Hirugarrena**

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2009ko otsailaren 24an.

Gizarte Ekintzako foru diputatua,
JUAN MARÍA ABURTO RIKE

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-403)

Asimismo se fijan las cuantías de las prestaciones económicas para cuidados en el entorno familiar y de asistencia personal de personas en situación de dependencia, para el año 2009, que serán actualizadas anualmente como mínimo conforme al incremento del Índice de Precios al Consumo (IPC).

**Artículo 2.—*Determinación de la cuantía de la prestación para cuidados en el entorno familiar***

El importe de la prestación para cuidados en el entorno familiar, regulada por el Decreto Foral 98/2007, de 19 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, se establece en:

| Grados y niveles | Prestación económica |
|---|---|
| — Grado III, nivel 2 ................................ | 519,13 euros |
| — Grado III, nivel 1 ................................ | 415,73 euros |
| — Grado II, nivel 2 ................................. | 336,24 euros |
| — Grado II, nivel 1 ................................. | 300,00 euros |

**Artículo 3.—*Determinación de la cuantía de la prestación de asistencia personal***

El importe de la prestación de asistencia personal, regulada por el Decreto Foral 99/2007, de 19 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, se establece en:

| Grados y niveles | Prestación económica |
|---|---|
| — Grado III, nivel 2 ................................ | 831,47 euros |
| — Grado III, nivel 1 ................................ | 623,60 euros |

DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera**

De acuerdo con lo establecido en la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, las prestaciones que se concedan durante el año 2009 al amparo del presente Decreto Foral, se efectuarán con cargo a la partida consignada como: Departamento (03), Sección (0304) Programa (310305), Económico (46100), número de proyecto 2007/0823 en el supuesto de cuidados en el entorno familiar y número de proyecto 2007/0822 en el supuesto de prestación de asistencia personal.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

**Única**

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto Foral.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera**

Se faculta al diputado foral titular del Departamento de Acción Social para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral.

**Segunda**

En todo lo no previsto en el presente Decreto Foral serán de aplicación supletoria las normas generales contenidas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como las correspondientes disposiciones legales vigentes que resulten de concordante y pertinente aplicación.

**Tercera**

Este Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, a 24 de febrero de 2009.

El diputado foral de Acción Social,
JUAN MARÍA ABURTO RIKE

El Diputado General,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-403)

**Gizarte Ekintzako foru diputatuak 2008ko azaroaren 6an emandako 47151/2008 Foru Aginduaren jakinarazpenari buruzko iragarkia. Agindu horren bidez, OFIC CA SAN 319 zigor-espedientea hasi da gizarte zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 legearen arau-hausteei dagokienez.**

Jakinarazpen ondorioetarako Bilboko Arbolantxa zeharkaleko 7 zenbakiko behe solairuan helbidea duen «Residencia Arabella 2004 S.L.» entitateari, I.F.Z. B-95327953 duenari, jakinarazpena emateko ahaleginak eginda, ezin izan da berau eman Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legearen 59.1 eta 59.2. artikuluekin bat etorriz. Hortaz, 30/1992 lege horren 59.4. artikuluan xedatutakoa betetzeko, iragarki hau argitaratzen da, zigor-espedientea hasteko erabakia jakinarazia izan dadin. Erabaki hori Gizarte Ekintzako foru diputatuak 2008ko azaroaren 6an emandako 47151/2008 Foru Aginduaren bidez hartu zen administrazio espediente batean, OFIC CA SAN 319, gizarte zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 legearen ustezko arau-hausteak gertatu direlako.

Instrukzioak eman dezakeenari kalterik egin gabe, zigor espediente honetan honako zigor hauek izan daitezke egokiak: Bi arau hauste arinetatik bakoitzerako, ohartarazpena eta/edo gehienez 601,01 euroko isuna eta bi arau-hauste larrietatik bakoitzerako gehienez 6.010,12 euroko isuna, dirulaguntzak eteteaz edo kontzertuak ezeztatzeaz gain (horrelakorik balego), baita urte 1 eta 5 urte bitartean Euskal Autonomia Erkidegoaren edozein laguntza publikoaz jabetzeko aukera debekatzea ere.

Zigor-espedientea hasteko erabakiaren kontra, zigortu direnek eta interesdunek egoki jotzen dituzten alegazioak, dokumentuak eta informazioak aurkez ditzakete eta frogak emateko beste epe bat eska dezakete, egoki irizten diren froga-bideak proposatuta 15 egun balioduneko epearen barruan, iragarki hau argitaratzen denetik hasita. Hauxe da horiek guztiak aurkezteko tokia: Gizarte Ekintza Saileko Ikuskapen eta Kontroleko Zerbitzua, Ugasko bidea, 3bis-2. solairua, Bilbo.

Bilbon, 2009ko urtarrilaren 26an.—Gizarte Ekintzako foru diputatua, Juan María Aburto Rike

(I-355)

•

**Anuncio de notificación de la Orden Foral 47151/2008, de 6 de noviembre, del diputado foral de Acción Social, por la que se incoa expediente sancionador OFIC CA SAN 319, en relación con infracciones de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de servicios sociales.**

Intentada la notificación a la entidad «Residencia Arabella 2004 S.L.» con C.I.F B-95327953, con domicilio a efectos de notificación en Travesía Arbolantxa, 7 bajo de Bilbao, no se ha podido practicar conforme a los artículos 59.1 y 59.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común, por lo que en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 59.4 de la citada Ley 30/1992, se publica el presente anuncio a fin de que sirva de notificación del acuerdo de incoación de expediente sancionador adoptado en el expediente administrativo OFIC CA SAN 319, por Orden Foral 47151/2008, de 6 de noviembre, del Diputado Foral de Acción Social, por posibles infracciones de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de servicios sociales.

En dicho expediente sancionador, sin perjuicio de lo que resulte de la instrucción, puede corresponder por cada una de las dos infracciones leves una sanción de apercibimiento y/o multa de hasta 601,01 euros, y por cada una de las dos infracciones graves una sanción con multa de hasta 6.010,12 euros, además de la supresión de las subvenciones o revocación de los conciertos, si los hubiera, y la prohibición de acceder a cualquier tipo de ayuda pública de Comunidad Autónoma Vasca por un período comprendido entre uno y cinco años.

Contra el acuerdo de incoación de expediente sancionador que se encuentra a disposición de la entidad interesada en el Servicio de Inspección y Control del Departamento de Acción Social sito en Camino Ugasko, 3bis-2.ª planta de Bilbao, podrán los inculpados e interesados aportar cuantas alegaciones, documentos e informaciones estimen convenientes y solicitar la apertura de un período probatorio, proponiendo los medios de prueba que consideren adecuados, en el plazo de 15 días hábiles desde la publicación del presente anuncio.

Bilbao, a 26 de enero de 2009.—El diputado foral de Acción Social, Juan María Aburto Rike

(I-355)

•

## Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila

**Udal Harremanen eta Herri Administrazio saileko foru diputatuaren otsailaren 27ko 1691/2009 FORU AGINDUA, Administrazio Bereziko Eskalan, Suhiltzaile-Gidarien deialdian, onartuak eta baztertuak, eta baita uko egin dutenen zerrendak onesten dituena.**

Legeak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, honako Foru Agindu honen bidez hurrengo hau

XEDATU DUT:

Lehena.—Administrazio Bereziko Eskalan, Suhiltzaile-Gidarien espezialitatean, Karrerako Funtzionario legez, berrogeita bederatzi (49) plaza hornitzeko Bizkaiko Foru Aldundiak egindako deialdian, onartuak eta baztertuak, baita uko egin dutenen zerrenda onestea, honako honi I. eranskin gisa eransten zaiola.

Bigarrena.—Aipaturiko I. eranskinean barru sartutakoei hamar eguneko epea ematea, halakorik denean, aurkitzen dituzten okerrak zuzen ditzaten.

Hirugarrena.—Aipaturiko I. Eranskin gisa eransten zaizkionak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean nahiz Foru Aldundiko Iragarki Oholean argitara dadila xedatzea.

Laugarrena.—Aipaturiko deialdiko lehenen ariketa 2009ko maiatzaren 9an, goizeko 09:30etan, Bilbao Exhibition Centre, eta hantxe 09:10etan egon behar da.

## Departamento de Relaciones Municipales y Administración Pública

**ORDEN FORAL 1691/2009, de 27 de febrero, del diputado foral de Relaciones Municipales y Administración Pública, por la que se aprueban las listas de admisiones, exclusiones y desistimientos de la convocatoria de Bomberas/os Conductoras/es de la escala de Administración Especial.**

En uso de las facultades que la ley me confiere, y de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico, por la presente Orden Foral

DISPONGO:

Primero.—Aprobar las listas de admisiones, exclusiones y desistimientos de la convocatoria realizada por la Diputación Foral de Bizkaia para la provisión, en el funcionariado de carrera, de cuarenta y nueve (49) plazas en la escala de Administración Especial, especialidad: Bomberas/os Conductoras/es que se adjunta como anexo I.

Segundo.—Conceder a las personas que integran el citado anexo I un plazo de diez días para, si los hubiere, subsanen los errores que detecten.

Tercero.—Disponer la publicación de las mencionadas relaciones que se adjuntan como anexo I, tanto en el «Boletín Oficial de Bizkaia» como en el tablón de anuncios de la Diputación Foral.

Cuarto.—El primer ejercicio de la referida convocatoria se celebrará el día 9 de mayo de 2009 a las 09:30 horas, en Bilbao Exhibition Centre, debiendo presentarse allí a las 09:10 horas.